

Siderurgia euskal industria-sareko sektorerik garrantzitsuen izan da, bai eta gure herrialdeko botere ekonomikoaren gakoetako bat ere. Baliabide natural ugari zegoenez eskuragarri, sektorea asko garatu zen; hain zuzen ere, baliabide horietako lehenengoa burdin mineral ugaria zen, kalitate bikainekoa, ateratzeko erraza eta Euskal Herriko zati handi batean dagoena (Bizkaian, Somorrostro-Trianon; Gipuzkoan, Aiako Harria-Zerain-Mutiloa-Arrasaten; Araban, iparraldeko aldean; eta Nafarroan, ipar-mendebaldean).

Erreka eta baso ugarietako esker, burdinolen funtzionamendurako behar zen energia eta egur-ikatzak lortzen zen. Faktore bi horietako esker eta kokapen geografikoari, ontzi-industriaren goraldiari eta foru erregimenaren ondoriozko zerga-presio baxuari esker, metalurgia-jarduera haziz joan zen, eta, modu horretan, euskal burdina Europako eta kolonietako merkatuetako merkataritza-objektu nagusia izatera heldu zen.

Kristo aurreko lehenengo milurtekoaren erdialdetik ere, burdinaren metalurgia ezaguna zen Euskal Herrian, eta jarduera hori XIII. mendera arte aldaketa handirik gabe heldu ziren instalazio aurreindustrialetan egiten zen; haizeolak edo agarrolak izeneko mendiko burdinoletan, hain justu. Burdin minerala hementxe bihurtzen zen lehengai forjagarri, meatzetatik hurbil zeuden gune basotsuetan, haize nagusietarantz begira eta erdi lurperatutako murrizketa-labeetan; horretarako, egur-ikatzak eta giza indarra ziren baliabide bakarrak. Jentilen eta Sugearen kondairek dioten moduan, haizeolak egunez eta gauez egoten ziren piztuta, eta

isurialde atlantikoko mendiak argizatzen zituzten, Arabako Lautadako haranak betetzeaz gain.

XIII. mendearen bigarren erdialdean, zeharrolak izeneko burdinola hidraulikoak, tokian tokiko eliteek sustatutakoak, agertzen hasi ziren, eta, apurka-apurka, burdinola tradizionalak aurrea hartu zieten. Hauspoak eta mailuak mugitzeko ura erabiltzen zenez energia-iturri gisa, burdinolak erreken ondoetara eramane ziren, eta, horrela, burdinaren ekoizpena modernizatu eta areagotu ahal izan zen.

Burdin totxoak (sarri askotan, Gaztelako artilea garraiatzen zuten ontziek lasta gisa erabiltzen zituzten totxo horiek) ziren Frantzia, Ingalaterra, Herbehereak eta, XV. mendearen amaieratik, Amerikara eramaten ziren esportazio-gai nagusiak. Produktu horiekin batera, burdinola txikiagoetan eta sutekietan egindako produktuak zeuden: iltzeak, etxerako tresnak, lanabesak, armak... horiek guztiek tokian tokiko komunitateen eskaera asetzen zuten, bai eta, neurri txikiagoan (armen kasuan izan ezik), Estatu zein nazioarteko eskaerak ere.

Suediatik eta Errusiatik zetorren burdinak prezio eta kalitate aldetik eragiten zuen lehia gogorraren ondorioz, XVIII. mendean euskal burdinolak gainbehera joaten hasi ziren, eta, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen ilustratuek ahalegin handia egin zuten arren burdinolak modernizatzeko, ia erabat desagertu ziren hurrengo mendearen amaieran. Modu horretan, iraultza industrialerako urratsa eman zen, harriak eta labe garaiak protagonista bihurtuta.

*La siderurgia ha sido el sector más importante del tejido industrial vasco y una de las claves del poder económico del País. Su desarrollo se vio favorecido por la abundancia de recursos naturales disponibles, el primero de los cuales es la riqueza en mineral de hierro, de excelente calidad y fácil extracción y que se halla concentrado en una amplia franja de Euskal Herria (Somorrostro-Triano en Bizkaia, Peñas de Aia-Zerain-Mutiloa-Mondragón en Gipuzkoa, la parte septentrional de Álava y la zona noroeste de Navarra).*

*Los numerosos ríos y la abundancia de bosques proporcionaban la energía y el carbón vegetal necesarios para el funcionamiento de las ferrerías. Y fueron estos dos factores junto con la situación geográfica, la pujanza de la industria naval y la baja presión fiscal consecuencia del régimen foral, los que favorecieron el crecimiento de la actividad metalúrgica y convirtieron el hierro vasco en el principal objeto de comercio con los mercados europeos y coloniales.*

*Ya desde mediados del primer milenio antes de Cristo la metalurgia del hierro era conocida en Euskal Herria, desarrollándose en unas instalaciones preindustriales que llegaron hasta el siglo XIII sin grandes variaciones: las ferrerías de monte, haizeolak o agarrolak. Situadas en zonas boscosas y cercanas al coto minero, orientadas hacia los vientos dominantes y compuestas por hornos de reducción semienterrados, era aquí donde el mineral de hierro se transformaba en materia prima forjable utilizando como únicos recursos el carbón vegetal y la fuerza humana. Las haizeolak, encendidas día y noche, tal y como recogen las*

*leyendas de los Jentilak y Sugae, iluminaban los montes de la vertiente atlántica y poblaron también los valles de la Llanada Alavesa.*

*Será en la segunda mitad del siglo XIII cuando las ferrerías hidráulicas, promovidas por las élites locales, comiencen a aparecer, solapando paulatinamente a las ferrerías tradicionales. La utilización del agua como fuente de energía para mover fuelles y mazos provocó el traslado de las ferrerías junto a los ríos, y permitió modernizar y ampliar la producción de hierro.*

*Tochos y lingotes de hierro (en muchos casos utilizados como lastre por los navíos que transportaban la lana castellana como mercancía principal), serán los principales objetos de exportación hacia los mercados de Francia, Inglaterra, Países Bajos y, desde fines del siglo XV, América. Junto a ellos, los productos manufacturados en las ferrerías menores y fraguas, tales como clavos, útiles domésticos, herramientas, armas... surtirán a las comunidades locales y también, aunque en menor medida salvo en el caso de las armas, a la demanda nacional e internacional.*

*La dura competencia en precio y calidad del hierro procedente de Suecia y Rusia provocó el lento declive de las ferrerías vascas durante el siglo XVIII y, a pesar de los esfuerzos realizados por los ilustrados de la Sociedad Bascongada de Amigos del País para su modernización, desapareciendo prácticamente al final de la siguiente centuria. Se da así el paso a la revolución industrial protagonizada por el carbón mineral y los altos hornos.*

